# colaboraciones

## Atxarte SOS

Atarte es un desfiladero de unos 250 metros de largo, incluido dentro de los límites del parque natural de Urkiola.

Sus paredes son las aulas de la escuela de alta montaña. Además en dicha área se encuentran una docena de cuevas, en los que sus yacimientos prehistóricos más antiguos datan de 28.000 a 25.000 años a. de C., esto es, pertenecientes a la cultura del Auriñaciense Superior.

En la actualidad, el funcionamiento de las canteras es incompatible con la práctica de la escalada en las paredes de Labargorri.

La cueva Astokoba descubierta por el Padre Barandiaran en 1931, que contenía yacimientos prehistóricos, ha desaparecido por las labores de las canteras.

Otra de las cuevas (Oyalkoba), en la que el Padre Barandiaran encontró un yacimiento prehistórico de la Edad de Bronce, se encuentra gravemente lesionada debido a las vibraciones de las explosiones, a pesar de estar alejada en 50 mtros. de las canteras. Hay otras cuevas de menor importancia que han desaparecido o se encuentran gravemente dañadas (Urrekoba, Arranokoba, Atxartekoba etc.).

El estado del río Atxarte a su paso por el desfiladero es caótico. En cuanto a la flora, los troncos secos de castaños y nogales son testigos mudos de lo que ha sucedido en Atxarte.

Pocos rincones hay en Euskadi (tal vez ninguno) que nos aporten tanto valor cultural y deportivo, al mismo tiempo que belleza para nuestra vista.

Pero hay una cosa anterior al cazador prehistórico de Atxarte, anterior a los escaladores, anterior al Parque Natural, anterior a los castaños secos de Atxarte y que sigue incrustado en algunas personas, incluídas las del Ayuntamiento de Abadiño: la codicia.

Iro LANDALUZE

## 2001garren urtea: Euskara!

# «Ahaleginak bilduz, etorkizuna lantzen»

Horixe da EKBk gizarteratu duen asmo berriaren goiburua; asmoa bera, berriz, Euskararen oraingo eta geroko dinamikari buruz elkarrizketa eta eztabaida herritarren artean zabaltzea, datorren urtarrilerako antolatu duen batzarre herritar zabalari begira.

Badira eztabaida sozial batzuk modan egon ohi direnak, baina horrexegatik modan egotea ere uzten dutenak. Euskararena ez da moda, Euskal Herriaren arazo funtsezkoa denez, oraindik konpondu gabea, eta, dirudienez, urte batzuk beharko dituena konponbidean ipintzeko eta urte luzeak benetan konpontzeko.

EKBn ez dugu joan diren urteetako esperientziatik batzuren batzuk atera ohi duten etsipenetik abiatu nahi. 2000garren urtera begirako itxaropenetik abiatu nahi dugu. Baina tartean 10 urte gelditzen dira; eta ez da ametsetan gelditzeko momentua, datozen urteotako jokabideak definitzekoa eta planak berritzekoa baizik, 2001garren urtea abiaburu berria izango bait da euskararentzat. Azken hamar urteotako euskararen dinamika sozialak zenbaiti etsipena eragin badio, datozen hamar urteak itxaropen berria suspertzeko izan behar dute.

Horretarako elkarlan eta lankidetza berrien bideak urratu behar; eta horri begira elkarrizketa eta eztabaida zabalak ireki.

### Euskararen politika ala euskararen politizazioa

Azken aldiko eztabaida handietakoa Euskal Herriaren autodeterminazioarena eta independentziarena izan dugu; eta oraindik emango du horrek zeresanik eta zereginik. Baina zein leku du Euskal Herriaren hizkuntza, Euskara, berreskuratzeak eta normaltzeak autodeterminazioaren bidean eta independentzia gauzatzean? Hiru alderdi nagusi ditu Herriaren autodeterminazioak: politiko-juridikoa, ekonomiko-administratiboa, kultural-linguistikoa. Hirurak lotutak ote doaz? galdetzen zuen lehengo egun batean hizlari batek bere hitzaldian.

Nere ustez, bereiztezinak dira hiru alderdiok, Herriaren autodeterminazio eta independentzi estrategia zuzenean. Baina bakoitzak bere autonomia du, eta hiruren arteko lotura ez da inola ere erabakarrekoa.

Euskararen eta Euskal Kulturaren normalkuntzarako estrategiak berari dagokion bidea ireki behar du, estrategia politiko eta ekonomiko orokorren eta horien gorabeheren menpe egon gabe. Hori horrela baieztatu beharra dago, batez ere historiak berak erakusten badigu, independentzia politiko-juridiko formalak ez dakarrela berez Herriaren hizkuntzaren normalkuntza, ezta horren biziraupena ere. Begira Irlandari. Alderantziz, hizkuntzazko eta kulturazko "autodeterminazioaren" bidea irekitzea, autodeterminazio politiko-juridikoaren bidea urratzeko tresna izateaz gain, horren oinarria eta sendogarria dela esan daiteke. "Aitaren etxea" ezin daiteke enkofradu juridiko-politikoa bakarrik; bizitzeko gertu dagoen etxea izan behar du.

Euskararen politizazioaren salaketa atera izan da sarriegi azken urteotan, areriotzat hartzen denari aurpegira jaurtitzeko armatzat. Euskararena, beste edozein hizkuntzarena bezala, arazo politikoa denik inor gutxik ukatuko du, politika beronen esanahirik zabalenean eta oinarrizkoenean harturik. Hain zuzen ere, euskararen benetako politika autonomorik —horren plangintza orokorrik— ez dagoenean, orduan gertatzen da euskararen politizazioa: hau da, egokiera politiko jakinei begira landutako estrategia eta taktika politiko globalen arabera moldatzea euskarari buruzko programaren "kapitulua".

### Euskara euskal gizartearen komunikazio-oinarria

Bere hizkuntza du Herri bakoitzak komunikazio sozialerako baliabiderik oinarrizkoena eta bikainena. Horregatik edozein Herri gerta dakiokeen dramarik nagusienetakoa hauxe da: beraren hizkuntza inkomunikazio-gertakari bihurtzea, gizartearen hausturaren seinale; areago, komunikazio sozialerako traba bihurtzea.

Euskararekin horrelako zerbait gertatu zaigu. Larria benetan! Non dago horren arrazoia —barka, desarrazoia—?

Hipotesi gisa behintzat, Euskal Herrian azken urteotan "zera" politikoak izan duen gailentasun gehiegizkoa dela esango nuke: eta "zera" politikoarekin batera, politikarien gailentasun nabarmena. Gasteizko kontseilarietako batek esana du berriki: "La sociedad vasca está secuestrada por la política"... Ulertu nahi dut, ez euskal gizartea bera politizatuegia dagoela, eta bai politikarien gailentasunak "gizarte zibila" esaten den hori —herria?— "bahituta" daukala: ixilpean eta geldierazita. (Horretxek ekarri du agian, sarritan euskararen politika autonomoaren ordez, euskararen politizazioa nabarmentzea).

Denok ezagutzen dugu, ordea, Herri honek bizi duen eten soziopolitikoa eta inkomunikazio sozialaren fenomenoa. Horren eragina eta ondorioak jasan dituzte euskararen berreskurapenerako ahalegin sutsuek eta horren normalkuntzarako programa sektorialek eta plan zabalagoek, euskararen, euskaldunon eta Euskal Herriaren kalterako: herritarren arteko funtsezko komunikazioa trabatzean, batetik, eta erakunde publikoen eta erakunde herritarren arteko elkarrizketa eta elkarlana bihurritzean, bestetik.

Guzti horretan dago Euskararen eta Euskal Kulturaren alorrean azken urteotan zenbait herritar euskaltzaleren artean zabalduriko etsipenaren sustraia. Hori gainditzen ez badugu, nekez lortuko ditugu —ezingo ditugu lortu— ez euskararen berreskurapena eta normalkuntza, ezta euskal gizartearen baketzea ere luzaroan.

Horregatik arazorik larrienetakoa da euskara Herri honen komunikazio sozialerako tresna bihurtzea: baita euskara dakitenen eta ez dakitenen artekoa ere, solasaldi soilerako baino komunikazio sakonagorako bait da Euskara Euskal Herriarentzat. Horrek pedagogia sozial eta politiko berria eskatuko ditu, euskararen berreskurapenaren eta normalkuntzaren gakoa ez bait dago horien aldeko predikuak egitean, gizartea eta Herria bateratzean baizik; ezta horren helburua ere ez dago eztabaidak zabaltzean, komunikazioa sortzean baizik.

Horretarako, besteren artean, eta aurrenik, euskararen politika euskararen politizaziotik atera egin behar da, "zera" politikoaren gailentasuna irauliz: "Euskararen arazoari" berari dagokion oinarrizkotasuna eta autonomia aitortu behar bait zaizkio, horretan bereziki gizarte zibilari protagonismoa itzuliz.

Bestalde, euskaldunok euskararen inguruan batzea eskatzen du horrek, horren aldeko indarrak eta ahaleginak bateratzeko, euskara normaldu eta herritar guztion komunikazio-oinarri eta tresna bihurtzeari begira.

Beste hitzetan esanda, herritarrok "Euskararen arazoa" bakoitzaren eta guztion erantzukizun pean hartzea eskatzen du horrek. Izan ere, euskararen politizazioak badu beste esanahirik ere, goian aipaturikoaz gain: hau da, politikarien —edota erakunde publikoen— erantzukizuntzat uztea herritarrek horren normalkuntzaren eginkizuna. Euskararen arazoa, ordea, politikoa izanik, ez da, ez soilik eta ez aurrenik, politikarien arazoa.

Paulo AGIRREBALTZATEGI
(EKBko Lehendakaria)

López & Pérez




## La historia se repite

Dos nuevas "muertes por sobredosis", nos volvemos a conmocionar, nos preocupa cómo fue, quiénes eran... hasta podemos llegar a sentirlo; se sigue repitiendo la triste historia, se engrosan estadísticas, se colocan titulares y... hasta la próxima vez.

Este tipo de hechos se tratan aisladamente, como simples accidentes; pero, realmente lo que no podemos olvidar es que diariamente se abona el terreno de una u otra forma para que se sigan dando estos hechos: con la complicidad de unos, y la apatía generada por la impotencia de otros.

Estamos cansados de leer noticias sobre este tipo de cuestiones, donde el acento es el morbo que produce el trinomio: joven + droga = muerte, sin tener en cuenta la realidad que circunda a estos toxicómanos, a sus familias, a los Barrios y Pueblos; es fácil buscar justificaciones vacías de contenido ante hechos como estos: "mercancía en mal estado", "suicidio", "mezclas". Lo verdaderamente difícil es evitar que esto siga sucediendo, lo difícil es mejorar las condiciones de vida de nuestros Barrios, dotar a la Comunidad de Recursos, adecuar los programas terapeúticos a las necesidades de cada toxicómano para hacerlos más asequibles; romper con el individualismo, la apatía, la conformidad y plantearnos una lucha común con unos objetivos comunes que desemboquen en unos Barrios y Pueblos sin Drogodependencias.

Triste historia la nuestra, cuando sólo somos capaces de estremecernos ante las hojas de sucesos.

María Cruz ATXABAL
Luz Fdez. DE LA PUENTE
Jesús FARURIA
Marta IBABE